


2005eko bigarren hiruhilekoan Interneten 700.000 erabiltzaile egon da

Sarearen bidez erosketarik egin duen Internet erabiltzaileen kopurua %6,3 igo da

Euskal Autonomia Erkidegoan, internauta kopurua 41.500 pertsonatan igo da 2005eko bigarren hiruhilekoan, beraz, Internetek 700.000 erabiltzaile izan ditu, hau da, 2004ko laugarren hiruhilekoan baino %2,2 puntu gehiago, eta aurreko urteko hiruhileko berean baino %3,4 puntu gehiago, Eustatek prestatutako datuen arabera. Sareko erabilera honekin, azken hiru hilabeteetan Interneten sartu diren 15 urtetik gorako pertsonen kopurua biztanle guztien %38raino iritsi da.

Internauten gehikuntza honen arrazoi bat da helduen artean (45 eta 64 urte artekoak) 26.900 erabiltzaile berri dagoela. Bestalde, pertsona okupatuen kolektiboa da internauten zentsuari ekarpen handiena egin diona: 40.600 pertsona.

15 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, ETXEAN INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO AUKERAREN ARABERA HIRUHILABETEA 1999-2005.%



Iturria: EUSTAT

Internautak batez ere etxetik sartzen dira Interneten

Interneten etxetik sartzen diren pertsonen portzentajea (guztien %72,8) estatu osoko handienetakoa da. Halere, 2005eko bigarren hiruhileko honetan hazkundearen erritmoa moteldu egin da, %1,1 bakarrik igo baita portzentajea.

Gipuzkoa da erabiltzaile tasetako buru, %40,7arekin, eta %5,7ko hazkundearekin. Gero Araba dator, %38,5arekin eta 1,1 puntuko hazkundearekin. Bizkaian internauten hazkundera %0,5ekoa izan da; beraz, tasarik txikiena du: %36,3.

Interneten nabigatzeko euskara erabiltzen duten internauten portzentajea %4,8 puntutan igo da 2005eko bigarren hiruhilekoan

2004ko laugarren hiruhilekoan Interneten euskaraz internauten %15,6ak nabigatzen zuen; 2005eko lehen hiruhilekoan portzentaje hori %20,4raino igo da. Interneten mugitzeko ia-ia 143.000 internautek erabiltzen dute euskara.

Azken konexioaren batez besteko erabilera 9 minutu baino gehixeago murriztu da. 2004ko laugarren hiruhilekoan ordu batekoa izatetik 2005eko bigarren hiruhilekoan 51,2 minutukoa izatera igaro da.

Internauten %20,7ak, hau da, 144.600 pertsona baino gehixeagok, erosketak egin dituzte Interneten 2005eko bigarren hiruhilekoan

Internet bidezko erosketen gehikuntza honen arrazoietakoa bat izan daiteke Internet bidezko ordainketetan segurtasuna atzematen dela. Izan ere, 2004ko laugarren hiruhilekoan, internauten %55a Internet bidez ordainketak egiterakoan oso edo nahiko seguru sentitzen zen, eta 2005eko bigarren hiruhilekoan, berriz, portzentajea %76,4 zen.

2005eko bigarren hiruhilekoan, teknologia berrien eta komunikazioen teknologien ekipamenduetarako sarbideak gora egiten jarraitzen du Euskal Autonomia Erkidegoan

Ordenagailuaren erabilera, 15 urtetik gorako biztanleen artean, %59,6 da Euskal Autonomia Erkidegoan. 2004ko laugarren hiruhilekoaren aldean %3,4 puntu igo da. Euskal familien %50 baino gehiagok etxean ordenagailua dauka.

15 urtetik gorako biztanleen artean Interneterako sarbidea duten pertsonen kopurua 73.500ean igo da (ehunekotan, 4 puntu). 800.000 pertsonen kopurua lehen aldiz gainditu da 2005eko bigarren hiruhilekoan. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan %43,7ak ekipamendu hori dauka dagoeneko.

Sakelako telefonoa ere gero eta jende gehiagok dauka. 2005eko bigarren hiruhilekoan balizko 6.000 erabiltzaile berri gehiago dago. Arabarrak dira Euskal Autonomia Erkidegoan ekipamendu hau gehien dutenak, batez bestez. Bigarrenak bizkaitarrak dira (%87) eta gipuzkoarrak azkenak (%86).

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA (IGI: FAMILIAK)

	2005eko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza, 2004ko 4. Hiruhilekoarekiko		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Milakoak	%	Milakoak	* ALD., %P.	Milakoak	* ALD., %P.
ETXEKO HORNIKUNTZAK						
FAMILIAK	760,9	100,0				
Ordenagailu pertsonala	383,1	50,3	15,2	1,9	22,1	2,7
Telefono mugikorra	607,4	79,8	3,7	0,3	19,0	2,2
Internet	276,7	36,4	16,6	2,2	22,1	2,8
Seme-alabadunak	223,0	51,4	12,7	3,0	13,6	3,7
Bikotearekin bakarrik	25,8	16,7	0,4	0,1	1,0	-0,3
Bakarrik bizi diren banakoak	27,9	16,1	3,4	1,9	7,4	4,3
15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERI	1.840,1	100,0			0,0	100,0
Ordenagailu pertsonala	1.097,3	59,6	62,1	3,4	56,5	3,0
Internet	804,1	43,7	73,5	4,0	65,5	3,6
Ordainpeko telebista	190,6	10,4	28,5	1,6	32,0	1,8
Bideoa	1.394,9	75,8	-32,3	-1,7	-60,8	-3,3
Telefono mugikorra	1.602,0	87,1	6,0	0,4	17,6	1,0
INTERNET-ERABILTZAILAK	699,9	38,0	41,5	2,2	63,2	3,4
Gizonezkoak	371,7	41,5	23,7	2,6	30,9	3,4
Emakumezkoak	328,2	34,7	17,8	1,9	32,3	3,4
Araba	99,2	38,5	3,1	1,1	6,6	2,4
Bizkaia	361,8	36,3	5,5	0,5	28,1	2,8
Gipuzkoa	239,0	40,7	33,0	5,7	28,7	4,9
15-24 urte	168,9	77,4	-1,7	1,8	-14,7	0,7
25-34 urte	207,9	62,2	8,0	3,7	27,0	8,6
35-44 urte	163,7	47,1	8,4	1,9	21,8	5,3
45-54 urte	109,6	35,9	15,2	3,9	17,7	4,6
55-64 urte	40,9	16,6	11,7	4,9	10,6	4,2
65 urte edo gehiago	9,0	2,3	0,0	0,0	0,9	0,2
Ikasleak	138,0	89,0	-13,1	0,9	-20,4	-0,2
Landunak	461,8	50,0	40,6	3,4	45,2	4,1
Ez-aktiboak eta langabeak	100,1	13,1	13,9	1,8	38,5	4,9
Etiketarik sartzen dira	509,8	72,8	37,7	1,1	42,8	-0,6
Lantokitik sartzen dira	292,9	41,8	6,1	-1,8	13,6	-2,1
Ikastetxetik sartzen dira	102,2	14,6	-12,1	-2,8	-20,8	-4,7
Beste leku batetik sartzen dira	74,2	10,6	-7,9	-1,9	-5,3	-1,9
Euskaraz nabigatzen dute	142,9	20,4	39,9	4,8	41,7	4,5
Gaztelaniaz nabigatzen dute	688,5	98,4	32,0	-1,3	54,5	-1,2
Ingelesez nabigatzen dute	158,2	22,6	-30,2	-6,0	10,7	-0,6
Internet bidez erosi du	144,6	20,7	49,8	6,3	56,0	6,8
Azken konexioaren batez besteko	51,2		-9,1		-5,0	

* ALD., %P. = Aldea, ehuneko-puntutan

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tlf:+34-945-01 75 36 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp